

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa alde zuzenetik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (izen-abizenak eta NANA). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. • Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko. • Denbora: 4 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen galderari erantzuteko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. • Helburua iritzia trukitzea, argudiatzea eta eztabaidatzea da. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. 	<p>35-40 min</p> <p>(15 min gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zeure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jariora, zuzentasuna eta aberastasuna.

GUTXIAGO KOBRATU EMAKUME IZATEAGATIK



Inoizko handiena da emakumeen eta gizonen arteko soldata-desoreka. 2013ko datuak hizpide, errealitatearen aurpegi gordinena azaleratu dute: Hego Euskal Herriko emakumeek batez beste gizonek baino gutxiago kobratzen dute; Nafarroakoek % 30 gutxiago eta EAEkoek % 25 gutxiago. Krisi ekonomikoa hasi zenetik desoreka hori gutxitu beharrean areagotu egin da eta desberdintasun sozialak bost urte eskasean hiru puntu baino gehiago handitu dira.

Berria, 2016ko otsailaren 21a.
Egokitua.

Lan-munduan dagoen zereginen bereizketa da era honetako diskriminazioaren jatorrian dagoen faktoreetako bat. Lanpostuen bereizketa bertikal eta horizontalak lanpostu zehaztutara bideratzen du emakumea edota lidergo-postuetara heltzea eragozten dio. Bereizketa horren ondorioz, emakumeak ugarien diren hainbat lanpostu daude, eta ordainsaria eskasagoa izaten da horietan. Horrekin batera, kontuan izan behar da askotan emakumeak malgutasun handiagoko lanpostuak aukeratzen dituela lanean eta familian dituen eginbeharrak orekatu ahal izateko.

Emakunde, 2014ko otsailaren 20a.
Egokitua

-
- Zure ustez, emakumeek jasotzen duten soldata gizonezkoena baino apalagoa da lanbide guztietan?
 - Zein dira gizonezkoen eta emakumezkoen arteko soldata-desorekaren arrazoiak?
 - Zer neurri har daitezke desoreka desagerrarazteko? Sindikatuek nahikoa lan egiten dute horretarako?
 - Enpresa pribatua eta sektore publikoan egoera berdina dela iruditzen zaizu? Zer dela eta?

1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zeure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jariora, zuzentasuna eta aberastasuna.

HONDAKINAK KUDEATZEKO ERRONKA



Hondakin organikoak birziklatzeko ohiturak gorakada nabarmena izan du EAEn, 2008ko datuekin alderatuta. Nolanahi ere, datuok herritarrei eginiko inkesta batean oinarritzen dira eta ez dute zertan bat etorri organikoen benetako birziklapen-tasarekin; 2015eko martxoan, esaterako, % 50ekoa zen birziklapen-tasa. Lurren artean, Gipuzkoa da organikoen birziklapenean hobekuntza handiena izan duena.

Papera, kartoia, plastikoa eta metalezko ontziak EAEko familien % 92 inguruk birziklatu ditu.

Askotan nahasten dira *hondakinak* eta *zaborra* kontzeptuak, eta gauza bera balira bezala erabiltzen dira. Baina ez da horrela: zaborra hondakinak nahastean sortzen da. Hala, birziklatzeko jasotzen diren hondakinak ez dira zaborra, baliabide bat baizik. Balio ekonomikoa dute: 2014an esaterako, 1.103.000 euroko diru-sarrerera izan zuen Debagoieneko Mankomunitateak papera, kartoia eta ontzi arinak saldua. Hondakinak zabortzat jotzea aldiz, garestia da: 2011n, nahasian bildutako zaborrak 2.165.663 euroko gastua eragin zuen.

Argia, 2016ko otsailaren 11.
Egokitua

Bergarako Udala.
Egokitua

-
- Gaur egun sortzen dugun hondakin kopurua jasangarria da ingurumenerako?
 - Zein da hondakinak tratatzeko modurik onena: birziklatzea, erraustea, berrerabiltzea...?
 - Hondakinak jasotzeko zer sistema erabili denon artean erabaki behar dugu ala Administrazioaren ardura da?
 - Nahikoa kontzientziatuta al gaude gai honetaz? Behartu al daiteke jendea birziklatzera?

2. ariketa

Gaiaren inguruko eztabaida egingo dugu orain.

- Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko argazkiak eta informazioa.
- Helburua: iritzia trukatzea, argumentatzea eta eztabaidatzea.
- Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko.

Kontuan hartuko dugu:

- Elkarrizketan zenbat/nola parte hartzen duzuen.
- Esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen.
- Euskara nola erabiltzen duzuen: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZERGAK, EZINBESTEKOAK ESTATUARENTZAT



- **Gizarte-ongizatea** bermatu nahi bada, denok egin behar dugu geure ekarpena.
- **Zerga progresiboak** behar ditugu: gehiago duenak gehiago ordaindu behar du.
- Iruzur fiskal handia dago gurean: **kontrolatzeko baliabide gehiago** behar dira.
- **Jarduera arriskutsuak mugatzeko** tresna izan daitezke zergak: kutsadura, elikagai kaltegarriak...
- **Hemengo presio fiskala** Europako **batez bestekoa baino txikiagoa** da.
- **Paradisu fiskalen aurka borrokatu** beharra dago.

**ZENBAT ETA ZERGA GUTXIAGO, ORDUAN ETA ABERASTASUN
 HANDIAGOA**



- Zerga gutxiarekin **jarduera ekonomikoa handitu** eta enplegua sortzen da.
- **Enpresei erraztasunak** eman behar zaizkie, eta ez oztopoak jarri.
- Denboran eta dirutan **enpresa bat sortzen zailen** den lekua da **Espainiako estatua**.
- **Kudeaketa pribatua** publikoa baino **eraginkorragoa eta merkeagoa** izan daiteke.
- **Familiek dirua aurreztu** dezakete **zergak txikiak badira**.
- **Administrazioek** zergak igo beharrean, **gutxiago gastatu behar** dute.